



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko ekainaren 8an

48 ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da datozen lau urteotarako turismo-plan estrategikoa presta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazari eta abeltzaintzako tributu arloan doikuntzak egin ditzan hurrengo errenta kanpainan. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetan egiten den fisioterapia koordinatzeko arauak eman ditzan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da LOGSEko goi mailako ikasketak arautuko dituen lege proiektu bat egin dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2001-2004 Etxebizitza Plana egiterakoan, zenbait irizpide eta epe kontuan har ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Kontratisten Erregistro Ofiziala sor dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Canal de Navarra S.A. enpresari eska diezaien bulegoak Nafarroako ubideko obretatik gertu dagoen Nafarroako herriren batean jar ditzala. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako paradore turistikoen sarea egin dezan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Atzera bidalitako mozioa (5. or.).

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak eta Parlamentuko Informazioa:

- Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolaketari eta jarduerari buruzko arauak (6. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da datozen lau urteotarako turismo-plan estrategikoa presta dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko maiatzaren 24an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da datozen lau urteotarako turismo-plan estrategikoa presta dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da datozen lau urteotarako turismo-plan estrategikoa presta dezan

"Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako Gobernua premiatzea Turismoari buruzko Plan Estrategikoa egin dezan Komunitate honetarako, sei hilabeteko epearen barruan.

Plan estrategiko horrek lurralde osoari buruzkoa beharko du izan; udaletako organizazioekin eta lanbide-organizazioekin ados jarriz egin beharko da, horrela turismo-politika komun eta

koordinatua egin dadin, Gobernuko departamentu guztiekin eta turismo-agente guztiekin.

Nafarroa kalitatezko turismo-helmuga gisa kokatzea izan behar du helburu plan horrek, eskaintza-aniztasunean oinarrituz.

Bertako turismo-enpresez osaturiko egitura sustatu behar du.

Merkatuko kanal guztiak (bereziki, lanbidekanalak) erabil daitezen bultzatu behar du, Nafarroa turismo-helmuga gisa saltzeko.

Partzuergoak eta arlo bakoitzeko elkarteak indartuz, sektore publiko eta pribatuaren egitura-keta bultzatu behar du.

Nafarroako Turismoaren Kontseilua era dadila erabaki behar da.

Finantza Plan bat aurreikusi behar da, Nafarroako eskualdeetan ekipamendu publikoetarako inbertsioei buruzko Urte Anitzeko Plan bat egiteari arreta berezia emanen diona.

Teknologia berrien erabilera sustatu behar du, Nafarroako turismo sektorean merkaturatze eta kudeaketa tresna berriak ezartzearen.

Turismoaren alorrean departamentuen arteko koordinazioa hobetzeko neurriak ezarri behar ditu; departamentuen arteko turismo-organo baten sorrera ekarriko dute neurri horiek."

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazari eta abeltzaintzako tributu arloan doikuntzak egin ditzan hurrengo errenta kanpainan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2000ko maiatzaren 24an eginiko Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazari eta abeltzaintzako tributu arloan doikuntzak egin ditzan hurrengo errenta kanpainan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazari eta abeltzaintzako tributu arloan doikuntzak egin ditzan hurrengo errenta kanpainan

"1. Nafarroako Gobernuak, Errentaren hurrengo kanpainan, PFEZko ordainketa-moduluak jaitziko ditu unean uneko neurri gisa. Jaitsiera horrek kontuan hartuko du nekazari eta abeltzainen produkzio-kostuen igoera.

2. Nafarroako Gobernuak, zortzi hilabeteko epean, ordainketa-proposamen aldagarri eta dinamiko bat aurkeztuko du, ordainketa-modulua Nafarroako nekazari eta abeltzainen etekin garbira doitzearren."

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetan egiten den fisioterapia koordinatzeko arauak eman ditzan

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2000ko maiatzaren 25ean eginiko bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetan egiten den fisioterapia koordinatzeko arauak eman ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetan egiten den fisioterapia koordinatzeko arauak eman ditzan

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, ahalik eta azkarren eta betiere ikasturte hau baukatu baino lehen, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetako ikasleei egiten zaien fisioterapiaz denaz bezainbatean Osasun Departamentuaren eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren arteko koordinazioa arautu dezan. Halatan, halakorik behar duten ikasleen fisioterapia tratamendua errehabilitazioko mediku baten agindupean eta osasun etxeekin koordinatuta eginen da."

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da LOGSEko goi mailako ikasketak arautuko dituen lege proiektu bat egin dezan

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da LOGSEko goi mailako ikasketak arautuko dituen lege proiektu bat egin dezan".

Biltzarrak, 2000ko maiatzaren 24an egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu

zuen. Mozio hori 2000ko martxoaren 21eko 24 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2001-2004 Etxebizitza Plana egiterakoan, zenbait irizpide eta epe kontuan har ditzan

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2001-2004 Etxebizitza Plana egiterakoan, zenbait irizpide eta epe kontuan har ditzan".

Biltzarrak, 2000ko maiatzaren 24an egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu

zuen. Mozio hori 2000ko otsailaren 28ko 20 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Kontratisten Erregistro Ofiziala sor dezan

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Kontratisten Erregistro Ofiziala sor dezan".

Biltzarrak, 2000ko maiatzaren 24an egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu

zuen. Mozio hori 2000ko martxoaren 21eko 24 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Canal de Navarra S.A. enpresari eska diezaion bulegoak Nafarroako ubideko obretatik gertu dagoen Nafarroako herriren batean jar ditzala

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Canal de Navarra S.A. enpresari eska diezaion bulegoak Nafarroako ubideko obretatik gertu dagoen Nafarroako herriren batean jar ditzala".

Biltzarrak, 2000ko maiatzaren 24an egindako

Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2000ko martxoaren 21eko 24 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako paradore turistikoaren sarea egin dezan

ATZERA BIDALITAKO MOZIOA

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak, ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako paradore turistikoaren sarea egin dezan".

2000ko maiatzaren 24an egindako Osoko Bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Par-

lamentuko Taldeak aipatutako mozioa atzera bidali zuen. Mozio hori 2000ko martxoaren 21eko 24 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolaketari eta jarduerari buruzko arauak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuberuak proposaturiko "Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolaketari eta jarduerari buruzko arauak" ikusita, eta Zerbitzu Juridikoen eta Langileen Batzordearen txostenak ikusita ere, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolaketari eta jarduerari buruzko arauak onestea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrús

Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolaketari eta jarduerari buruzko arauak

	Art.	Or.
I. Kapituluak: Espedienteak	1-8	6
II. Kapituluak: Dokumentu-sailak	9-42	7
III. Kapituluak: Fondoan sailkapen-koadro orokorra	43	9
IV. Kapituluak: Deskribapenerako bitartekoak	44-48	13
V. Kapituluak: Langileei dagozkien eginkizunak	49-52	13
VI. Kapituluak: Dokumentazio-transferentziak	53-57	14
VII. Kapituluak: Artxiboko dokumentazioa eskuratzeko modua	58-67	15
VIII. Kapituluak: Arau hauek betetzea	68-69	16

NAFARROAKO PARLAMENTUKO ARTXIBOAREN ANTOLAKETARI ETA JARDUERARI BURUZKO ARAUAK

Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren antolaketari buruzko 1992ko azaroaren 2ko Erregelamenduko 32. artikulua ezarritakoaren arabera, Nafarroako Parlamentuko Artxiboa honako dokumentu hauek osatzen dute: Biltzarrak, bere organoek, bere administrazio-unitateek edo bere zerbitzuko langileek euren eginkizunak betetzean sortu edo jasotakoek, edozein izanik ere dokumentu horien euskarri materiala.

Arau hauek idatzi dira beharrezkotzat jo delako, antolaketa eraginkorra eta funtzionamendu egokia bermatzeko, artxiboaren jardura jarraibide garbier arabera antolatzea, eta indarra duen araudia kontuan hartu ondoren. Arauok lehen aipaturiko Erregelamenduko 21etik 23ra bitarteko eta 32tik 35era bitarteko artikuluen garapena dira.

I. KAPITULUA: ESPEDIENTEAK

1. artikulua.- Espedientean daude bilduta Parlamentuko ekimen edo gai bati buruzko dokumentu guztiak, eta Artxiboko oinarriko antolaketa-unitatea da. Beraz, espediente batekoak ez diren dokumentuak ez dira Artxiboan sartuko.

2. artikulua.- Espediente bat deskribatzean, gutxienez ere honako datu hauek zehaztu behar dira: sailaren klabea, zenbakia, definizio tipologikoa (halakorik balego), hasiera- eta amaieradatak (urtetan adieraziak), arazoa edo gaia, ekimenaren bultzatzaileak —egonen balira— (Parlamentuko Taldea aipatuz) eta espediente osatzen duten elementuak. Artxiboan sartu ondoren, behin-behineko signatura topografiko bat esleitu ko zaio.

3. artikulua.- Elkarren artean loturak egon arren, gai ezberdinak espediente beraren barnean metatzeari itzuriko zaio.

4. artikulua.- Espedienteak euren hasiera-urtearen arabera ordenatuko dira, eta ez zaie lehenagoko dokumentaziorik erantsiko. Salbuespen gisa, funtzionarioen espediente pertsonalak –irekita egon behar baitute funtzionarioak zerbitzuan dauden epe bitartean zehar– euren amaiera-urtearen arabera ordenatuko dira.

5. artikulua.- Espedienteak, euren administrazio-izapidatzeak irauten duen bitartean, erabili ondoren botatzekoak diren artxibo-kutxetan gordetako dira (arretaz zainduta horietan ordena korrelatiboa errespetatzen dadila eta jauzi ilogikoak saihestuz), eta, Artxiboan sartu eta behin betiko signatura topografikoa ematen zaienean, behin betiko kutxetan.

6. artikulua.- Urtero errepikatzen diren gaiak urteko espedienteetan ordenatuko dira, eta izen bera emanen zaie.

7. artikulua.- Espedienteetako arazo edo gaien izena jartzeari dagokionez, uniformetasun eta sinpletasun irizpideei jarraituko zaie.

8. artikulua.- Sail bakoitzaren eta urte bakoitzaren barnean, espedientei zortzi zifra zenbaki korrelatibo bat emanen zaie. Lehen lau zifrak urteari buruzkoak izanen dira, eta beste lauek urte horren barneko zenbaki korrelatiboa adieraziko dute.

II. KAPITULUA - DOKUMENTU-SAILAK

9. artikulua.- Espediente guztiak sailetan sartuko dira, eta, horien barnean, zenbaki korrelatiboa eta urtekoa emanen zaie. Baldintza hori betetzen ez dutenak ez dira Artxiboan onartuko.

10. artikulua.- Biltzarreko Zerbitzu Orokorren ardura dira honako sail hauek:

- LEY: Lege proiektuak.
- PRO: Lege proposamenak.
- OTL: Lege mailako bestelako testuak.
- CDP: Kontrola eta zuzendaritza politikoa.
- MOC: Mozioak.
- ITP: Jabeldurak.
- POR: Ahozko galderak.
- PES: Galdera idatziak.
- AUT: Hitzarmenatarako baimenak.
- COM: Agerraldiak.
- PEI: Informazio-eskaerak.
- SET: Lan-bilerak.

- DCN: Nafarroako Kontseiluaren irizpenak.
- ASG: Idazkaritza Orokorreko gaiak.
- PER: Langileak.
- AOC: Eskurapenak, Obrak eta Kontratuak.
- PCP: Osoko Bilkura.
- CMS: Batzordeak.
- ACT: Akta-liburuak (Osoko Bilkurakoak eta Batzordeetakoak).

11. artikulua.- Kontu-hartzaitza eta Ekonomi Gaien Zerbitzuaren ardura izanen da honako sail hau:

- INT: Kontu-hartzaitza.

12. artikulua.- Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuaren ardura izanen dira honako sail hauek:

- PPP: Prentsa, Argitalpenak, Protokoloa.
- GRS: Bilkuretako soinu-grabazioak.
- GRI: Bilkuretako irudi- eta soinu-grabazioak.
- FOR: Argazkiak

13. artikulua.- Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuaren ardura izanen da honako sail hau:

- ABD: Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioa.

14. artikulua.- Mahaiaren eta Bozeramaileen Batzarraren Idazkaritzaren ardura izanen dira honako sail hauek:

- MJP: Mahaiaren eta Bozeramaileen Batzarra.
- PCP: Batzorde Iraunkorra.
- ACT: Akta-liburuak (Mahaiaren eta Bozeramaileen Batzarrarenak, Batzorde Iraunkorrenak).

15. artikulua.- Lehendakariaren Idazkaritzaren ardura izanen da honako sail hau:

- PRE: Lehendakariaren Dokumentazioa.

16. artikulua.- Kontuen Ganbarak bidalitako dokumentazioa, Parlamentuan jaso ondoren, Zerbitzu Orokorren ardura izatera pasako da, eta honako sail honen bitartez antolatuko da:

- CCO: Kontuen Ganbara.

17. artikulua.- LEY sailak (Lege Proiektuak) Nafarroako Gobernuak Parlamentura bidalitako lege-proiektuak jasotzen ditu. Halaber, 1979 eta 1982 bitartean Foru Diputazioak bidali zituen arau-proiektuak dauzka bilduta.

18. artikulua.- PRO sailak (Lege Proposamenak) parlamentariak, Parlamentuko taldeek, udalak edo herritarrek aurkezturiko lege proposamenak dauzka bilduta.

19. artikulua.- OTL sailak (Lege mailako bestelako testuak) honako hauei dagozkien espedienteak dauzka bilduta: Biltzarreko Erregelamendua eta bere aldaketak, Parlamentuaren zerbitzuko langileen Estatutua eta aipaturikoen ezaugarri eta maila bereko barne-izaerako beste edozein xedapen.

20. artikulua.- CDP sailak (Kontrola eta Zuzendaritza Politikoa) bilduta dauzka Parlamentuko eginkizun horiei buruzkoak izanik berariazko sailik ez daukaten espedienteak, hala nola Gobernuko Lehendakariaren inbestidura-prozesuak, Gobernuaren plan, programa eta bestelako jakinarazpenak, Ikerketa Batzordeak, dekretu legegileak eta abar.

21. artikulua.- MOC sailak (Mozioak) Biltzarrean Parlamentariak edo Parlamentuko taldeek aurkeztutako eta Osoko Bilkuran edo edozein Batzordetan izapidatutako mota horretako ekimenak dauzka bilduta.

22. artikulua.- ITP sailak (Jabeldurak) bilduta dauzka parlamentariak edo Parlamentuko Taldeek Gobernuari aurkezturiko ekimenak, Osoko Bilkurari bere jarrera ager diezaion eskatzen diotena; halaber, politika orokorreko gai bati buruzko ekintzak edo proiektuak.

23. artikulua.- POR sailak (Ahozko Galderak) parlamentariak Gobernuari edo bere kideei gai zehatzei buruz eginiko galderak dauzka bilduta; ahoz izapidatzen dira, erantzuna Osoko Bilkuran edo batzorde batean eman daitekeen arren.

24. artikulua.- PES sailak (Galdera idatzia) parlamentariak Gobernuari edo bere kideei gai zehatzei buruz eginiko galderak dauzka bilduta; horiei, idatzizko erantzuna ematen zaie.

25. artikulua.- AUT sailak (Hitzarmenatarako Baimenak) bilduta dauzkan Parlamentu prozedurak hauexek dira: Estatuarekin edo gainontzeko Autonomia Erkidegoekin negoziaturiko lankidetzakordioak edo hitzarmenak sinatzeko Gobernuari emandako baimenari buruzkoak.

26. artikulua.- COM sailak (Agerraldiak) Gobernuko kideek edo bestelako kargu publikoek euren ekimenez edo Bozeramaileen Batzarrak hala eskatuta batzorde baten informazio-bilkuran eginiko agerraldiak dauzka bilduta.

27. artikulua.- PEI sailak (Informazio Eskae-rak) parlamentariengandik sortutako, Lehendaka-

riak bideratutako eta Nafarroako Administrazio Publikoari—Biltzarreko Erregelamenduko 14. artikuluari jarraituz—zuzendutako informazio-eskaerak dauzka bilduta.

28. artikulua.- SET sailak (Lan-bilerak) barnean hartzen dituen espedienteak pertsona, talde, elkarte, erakunde edo entitateei egiten zaizkien harrerei buruzkoak dira. Harrera horien helburua da eurak ukitzen dituzten edo eurei interesatzen zaizkien gaiak batzordeetan edo Parlamentuko beste organoetan –informazio- edo eztabaidabilerean bilduak– agertzea.

29. artikulua.- DCN (Nafarroako Kontseiluaren Irizpenak) sailean sartuko dira Parlamentuak eskaturik Nafarroako Kontseiluak emanen dituen eta osatzen ari den beste espediente batekin (legegintzakoa, kontrolekoa edo administratiboa) zerikusirik ez daukaten irizpenak. Irizpen horiek espediente bereziak osatuko dituzte.

30. artikulua.- PCP (Osoko Bilkura eta Batzorde Iraunkorra), CMS (Batzordeak) eta MJP (Mahaia eta Bozeramaileen Batzarra) sailek organo horien bilkura bakoitzari buruzko espedienteak hartzen dituzte, eta izaera instrumentala daukate.

31. artikulua.- ACT (Aktak) sailak Osoko Bilkuraren, Batzorde Iraunkorraren, batzordeen eta Mahai eta Bozeramaileen Batzarraren bilkuren aktak jasoko ditu.

Akta guztiak urteka edo legegintzaldika elkartu eta enkuadernatuko dira. Organo baten akta-liburuki bakoitzak zenbaki korrelatibo bana izanen du, Artxiboko gainontzeko liburuekin batera egoki denean esleituko zaionarekin zerikusirik izanen ez duena.

Batzorde ezberdinetako aktak multzoka antolatuko dira laburrak direnean, eta Biltzarreko Erregelamenduak ezarritako lehentasun-ordenaren arabera antolatuko dira.

32. artikulua.- GRS (Bilkuretako Soinu Grabazioak) sailaren barnean sartzen dira Osoko Bilkuraren eta batzordeen bilkuren soinu-grabazioak; halaber, etorkizunean graba litezkeen Biltzarreko beste organoetakoak.

33. artikulua.- GRI (Bilkuretako irudi- eta soinu-grabazioak) sailaren barnean sartuko dira Osoko Bilkuretako eta batzordeen bilkuretako irudi-eta soinu-grabazioak; halaber, etorkizunean graba litezkeen Biltzarreko beste organoetakoak.

34. artikulua.- FOT (argazkiak) sailean sartuko dira Parlamentuak, bere organoek eta kideek eginiko edonolako bilkura eta ekitaldietako argaz-

kiak, zeinak horien jardueraren lekuko gisa gordeko baitira.

35. artikulua.- ASG (Idazkaritza Orokorreko gaiak) sailak, besteak beste, honako hauei buruzko espedienteak izanen ditu gordeta:

- Biltzarreko organoen osaketa, eta hori dela-eta sortzen diren gorabeherak eta errekurtsioak (ordezkapenak, parlamentariak, Parlamentuko taldeak).

- Parlamentuko administrazioaren antolamendua.

- Korrespondentzia-erregistroak.

- Nafarroako Parlamentuaren eta beste erakunde batzuen arteko harreman eta hitzarmenak (Nafarroako Gobernua, udaletxeak, Autonomia Erkidegoak, bestelako erakunde nazional eta atzerrikoak), non eta protokolo-bisitak edo egintzak ez diren, horiek PPP sailean jaso behar baitira.

- Biltzarrari eginiko eskakizunak eta bidalitako askotariko dokumentazioa. Mota honetako dokumentu batek zerikusia baldin badu abian dagoen Parlamentuko ekimen batekin, berorren espedienteari erantsiko zaio; Parlamentuko ekimena aurreko urtean edo aurreragokoetan bukatu bada, espediente bereizia irekiko da.

36. artikulua.- Barnean era askotako gaiak hartzen baditu ere, ASG sailak ez du bestelako dokumentu-sail tipifikatuetan egon behar luketen espedienteen biltoki bihurtu behar. Hori dela-eta, Artxibozain-Liburuzainak ezarriko dituen onarpen-eta bazterketa-irizpideei eginen zaie jaramon, sailaren arduradunari kontsulta egin ondoren.

37. artikulua.- PER (Langileak) sailean sartuko dira honako hauei dagozkien espedienteak: lanpostu-betetzeak, errekurtsioak, espediente pertsonalak, plantilla, ordainsariak, prestakuntza- eta hizkuntza-ikastaroak, ordutegia, osasun-laguntza, aseguruak, hitzarmenak eta lan-baldintzei buruzko akordioak, sindikatuak hauteskundeak eta abar.

38. artikulua.- AOC (Eskurapenak, Obrak eta Kontratuak) sailean sartuko dira ondasun higigarri eta higiezinei buruzko arazoak (lokalak, instalazio-

ak, altzariak, eskurapenak, mantenimendu-kontratuak eta abar).

39. artikulua.- INT (Kontuhartzaitetza) sailaren barnean sartuko dira gai ekonomikoak, aurrekontua eta horren betetzea, kontabilitate-liburuak, ordainketen frogagiriak, bertaratze-orriak, inbentarioak eta tankera horretako beste hainbat dokumentu.

40. artikulua.- PPP sailean (Prentsa, Protokoloa, Argitalpenak) sartuko dira informazio-zerbitzuetarako kontratuak, urte osoko prentsa-oharrak, protokolo-ekitaldiak eta bisitak, gonbiteak, eskualdeetako etxeekiko harremanak, liburu-argitarapenak, Aldizkariaren eta Bilkura Egunkariaren urteko kudeaketa, itzulpen-zerbitzu eta -kontratuak eta abar.

41. artikulua.- ABD sailean (Artxiboa, Liburutegia, Dokumentazioa) sartuko dira Zerbitzuari dagozkion arau eta planak, fondo-erosketari buruzko dokumentazioa, informazio bibliografikoa hedatzeko instrumentuak, artxiboa deskribatzeko instrumentuak (erregistroak, inbentarioak, katalogoak).

42. artikulua.- CCO sailean (Kontuen Ganbara) sartuko dira bai Kontuen Ganbararen jardunari buruzko espedienteak (hala nola urteko oroit-idazkia, Lehendakaria hautatzea, plantillako langileak, ondasun eta instalazioak, Parlamentuko Mahaiak bere eskurantzak eskuordetzan ematea eta abar) bai erakunde edo entitate publikoei edo fondo publikoak erabiltzen dituztenei buruz egiten dituen txostenak, fiskalizaziokoak nahiz bestelakoak.

Nafarroako Aurrekontuak (transferentziak, foru aginduak, kontuak) eta Parlamentukoak betetzeari buruzko txostenak, ordea, gai horiei buruzko espedienteetan sartuko dira.

III. KAPITULUA: FONDOEN SAILKAPEN-KOADRO OROKORRA

43. artikulua.- Nafarroako Parlamentuko Artxiboko dokumentazioa honako koadro honen arabera sailkatzen da (ahalegina egin da erakundearen eginkizunak eta bere organigrama koadroan sartzeko):

	Saila
1. Legegintza eta eginkizun finantzario-aurrekontugilea	
1.1. Lege proiektuak.....	LEY
1.2. Lege proposamenak.....	PRO
1.3. Lege-mailako bestelako testuak.....	OTL
2. Kontrola eta zuzendaritza politikoa	
2.1. Zuzendaritza politikoa.....	CDP
2.1.1. Gobernuko Lehendakariaren inbestidura, konfiantza-eskaera eta zentsura-mozioa.....	CDP
2.1.2. Mozioak.....	MOC
2.1.3. Planak, programak eta Gobernuaren bestelako jakinarazpenak, eztabaida orokorrak.	CDP
2.1.4. Hauteskundeak eta kargu-izendapenak	CDP
2.1.5. Erabakiak eta adierazpen politikoak.....	CDP
2.2. Informazioa eta Gobernuaren kontrola.....	CDP
2.2.1. Hitzarmenak.....	AUT
2.2.1.1. Hitzarmenak Estatuarekin.....	AUT
2.2.1.2. Hitzarmenak beste Autonomia Erkidego batzuekin.....	AUT
2.2.2. Jabeldurak	ITP
2.2.3. Galderak	
2.2.3.1. Ahozko erantzuna behar duten galderak	POR
2.2.3.1.1. Galderak Osoko Bilkuran.....	POR
2.2.3.1.2. Galderak batzordean.....	POR
2.2.3.2. Idatziko erantzuna behar duten galderak.....	PES
2.2.4. Gobernuaren agerraldiak.....	COM
2.2.5. Informazio-eskaerak	PEI
2.2.6. Ikerketa batzordeak.....	CDP
2.2.7. Dekretu legegileak.....	CDP
2.2.8. Lan-bilkurak	SET
2.2.9. Nafarroako Kontseiluaren irizpenak.....	DCN
3. Biltzarreko organoak eta Idazkaritza Orokorra	
3.1. Biltzarraren osaketa.....	ASG
3.1.1. Lehendakaritza.....	ASG
3.1.2. Mahaia eta Bozeramaileen Batzarra.....	ASG
3.1.3. Batzordeak.....	ASG
3.1.3.1. Ohiko batzordeak.....	ASG
3.1.3.2. Batzorde bereziak.....	ASG
3.1.4. Batzorde Iraunkorra.....	ASG
3.1.5. Parlamentuko taldeak.....	ASG
3.1.6. Parlamentariak.....	ASG
3.1.7. Parlamentarien Interes Erregistroa.....	ASG
3.1.8. Parlamentuko bizitza eta gertakariak.....	ASG
3.2. Biltzarraren jarduera	
3.2.1. Bilkura-espedienteak	
3.2.1.1. Osoko Bilkurako eta Batzorde Iraunkorreko espedienteak.....	PCP

	Saila
3.2.1.1.1. Osoko Bilkurako espedienteak.....	PCP
3.2.1.1.2. Batzorde Iraunkorreko espedienteak.....	PCP
3.2.1.2. Batzordeetako espedienteak.....	CMS
3.2.1.2.1. Ohiko batzordeetako espedienteak.....	CMS
3.2.1.2.2. Batzorde berezietako espedienteak	CMS
3.2.1.3. Mahaiko eta Bozeramaileen Batzarreko espedienteak.....	MJP
3.2.2. Aktak.....	ACT
3.2.2.1. Osoko Bilkurako eta Batzorde Iraunkorreko aktak.....	ACT
3.2.2.1.1. Osoko Bilkurako aktak.....	ACT
3.2.2.1.2. Batzorde Iraunkorreko aktak.....	act
3.2.2.2. Batzordeetako aktak.....	ACT
3.2.2.2.1. Ohiko batzordeetako aktak.....	ACT
3.2.2.2.2. Batzorde berezietako aktak.....	ACT
3.2.2.3. Mahaiko eta Bozeramaileen Batzarreko aktak.....	ACT
3.2.3. Bilkuretako soinu-grabazioak.....	GRS
3.2.3.1. Osoko bilkurako eta Batzorde Iraunkorreko soinu-grabazioak.....	GRS
3.2.3.1.1. Osoko Bilkurako soinu-grabazioak.....	GRS
3.2.3.1.2. Batzorde Iraunkorreko soinu-grabazioak.....	GRS
3.2.3.2. Batzordeetako soinuaren grabazioak.....	GRS
3.2.3.2.1. Ohiko batzordeetako soinu-grabazioak.....	GRS
3.2.3.2.2. Batzorde berezietako soinu-grabazioak	GRS
3.2.3.3. Mahaiko eta Bozeramaileen Batzarreko soinu-grabazioak.....	GRS
3.2.4. Bilkuretako irudi- eta soinu-grabazioak.....	GRI
3.2.4.1. Osoko Bilkurako eta Batzorde Iraunkorreko irudi- eta soinu-grabazioak.....	GRI
3.2.4.1.1. Osoko Bilkurako irudi- eta soinu-grabazioak.....	GRI
3.2.4.1.2. Batzorde Iraunkorreko irudi- eta soinu-grabazioak.....	GRI
3.2.4.2. Batzordeetako irudi- eta soinu-grabazioak.....	GRI
3.2.4.2.1. Ohiko batzordeetako irudi- eta soinu-grabazioak.....	GRI
3.2.4.2.2. Batzorde berezietako irudi- eta soinu-grabazioak.....	GRI
3.2.4.3. Mahaiko eta Bozeramaileen Batzarreko irudi- eta soinu- grabazioak.....	GRI
3.3. Lehendakaritza: korrespondentzia eta idazkaritza partikularra.....	PRE
3.4. Idazkaritza Orokorra.....	ASG
3.4.1. Parlamentuko Administrazioaren antolaketa orokorra, arauak eta proiektuak	ASG
3.4.2. Biltzarraren zerbitzuko langileak.....	PER
3.4.2.1. Antolaketa-arauak, hitzarmenak eta ordainsariak.....	PER
3.4.2.2. Lanpostu hutsak betetzea. Oposizioak eta lehiaketak.....	PER
3.4.2.3. Espediente pertsonalak.....	PER
3.4.3. Ondasunak eta instalazioak: eskurapenak, obrak eta kontratuak.....	AOC
3.4.3.1. Ondasun higiezinak. Instalazioak, zerbitzuak	AOC
3.4.3.2. Ondasun higigarriak.....	AOC
3.4.4. Korrespondentzia-erregistroak.....	ASG
3.4.5. Beste erakunde eta organizazioekiko harremanak.....	ASG
3.4.5.1. Nafarroako Gobernua.....	ASG
3.4.5.2. Nafarroako udalak.....	ASG

	Saila
3.4.5.3. Justizia Auzitegiak.....	ASG
3.4.5.4. Nazioko Gobernu eta Estatuko Administrazioa.....	ASG
3.4.5.5. Gorte Nagusiak	ASG
3.4.5.6. Autonomia Erkidegoetako Parlamentu eta Gobernuak.....	ASG
3.4.5.7. Bestelakoo erakunde eta organizazio nazional eta atzerrikoak.....	ASG
3.4.6. Eskaerak eta Biltzarrari zuzendutako askotariko dokumentazioa.....	ASG
4. Kontu-hartzailetza eta ekonomi gaiak	
4.1. Aurrekontuak eta aurrekontu-kudeaketa.....	INT
4.2. Kontabilitate orokor publikoa.....	INT
4.2.1. Gastuak betetzea.....	INT
4.2.2. Dirusarrerak betetzea	INT
4.2.3. Ordainsariak eta nominak.....	INT
4.2.4. Banku-frogagiriak.....	INT
4.3. Kontu-hartzailetza eta Ekonomi Gaien Zerbitzuaren antolaketa eta jardura.....	INT
5. Prentsa, argitalpenak eta protokoloa	
5.1. Informazioa jaso eta tratatzea.....	PPP
5.1.1. Prentsa-egunkariak.....	PPP
5.1.2. Hileroko prentsa-laburpenak.....	PPP
5.1.3. Prentsa-dossier bereziak.....	PPP
5.1.4. Harpidetzak eta informazio-kontratuak.....	PPP
5.2. Gizarte-komunikabideei informazioa eskuratzea.....	PPP
5.2.1. Prentsaurrekoak.....	PPP
5.2.2. Prentsa-oharrak.....	PPP
5.3. Argitalpenak, aldizkariak eta bilkura-egunkariak.....	PPP
5.3.1. Aldizkaria, bilkura-egunkaria eta Biltzarraren bestelako argitalpenak editatzea.....	PPP
5.3.2. Elkartrukeak eta harpidetzak	PPP
5.3.3. Argitalpenak biltegitatu eta banatzea.....	PPP
5.4. Itzulpengintza eta interpretaritza	PPP
5.5. Protokoloa	PPP
5.5.1. Ospakizun ofizialak, oroitzapen-ekitaldiak, kondekorazioak.....	PPP
5.5.2. Biltzarraren kanpo-proiektzioa.....	PPP
5.5.3. Izandako bisitak.....	PPP
5.5.4. Beste erakundeei gonbitak luzatu eta bisitak egitea.....	PPP
5.5.5. Harreman bereziak	PPP
5.6. Argazkiak.....	FOT
5.7. Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuaren antolaketa eta jarduna.....	PPP
6. Artxiboa, liburutegia eta dokumentazioa	
6.1. Artxiboa.....	ABD
6.1.1. Artxiboaren antolaketa eta arauak.....	ABD
6.1.2. Fondoaren deskribapena: erregistroak, inbentarioak, katalogoak.....	ABD
6.1.3. Informazio-hedapena eta Artxiborako sarbidea.....	ABD
6.2. Liburutegia.....	ABD

	Saila
6.2.1. Liburutegiaren antolaketa eta arauak.....	ABD
6.2.2. Liburutegirako fondoak eskuratzea.....	ABD
6.2.3. Erregistroa.....	ABD
6.2.4. Katalogazioa.....	ABD
6.2.5. Informazio-hedapena.....	ABD
6.3. Dokumentazioa.....	ABD
6.3.1. Dokumentazioko antolaketa eta arauak.....	ABD
6.3.2. Dossierak eta informazioa hedatzeko beste modu batzuk.....	ABD
6.4. Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuaren antolaketa eta jarduera.....	ABD
7. Kontuen Ganbara	
7.1. Kontuen Ganbarako txostenak.....	CCO
7.1.1. Fiskalizazio-txostenak.....	CCO
7.1.2. Bestelako txostenak.....	CCO
7.2. Biltzarraren antolaketa eta jarduera.....	CCO
7.2.1. Arau orokorrak, planak, antolaketa.....	CCO
7.2.2. Lehendakaria eta Auditoreak.....	CCO
7.2.3. Idazkaritza Orokorra	CCO
7.2.4. Langileak.....	CCO
7.2.5. Kudeaketa ekonomikoa, ondasunak eta instalazioak.....	CCO
7.2.6. Bestelako gaiak.....	CCO

IV. KAPITULUA: DESKRIBAPENERAKO BITARTEKOAK

44. artikulua.- Nafarroako Parlamentuaren Artxiboan bildutako dokumentu-fondoaren izaera, bertako dokumentazioaren ezaugarriak, antolaketaren irizpideak eta abar ulertu ahal izateko, artxibo horri buruzko gida labur bat prestatuko da. Gida hori Inbentario Orokorraren isla izanen da.

45. artikulua.- Artxiboa osatzen duten instalazio-unitateak kontrolatzeko, horien mota bakoitzeko Erregistro topografikoak eginen dira (papersortak, kutxak, liburuak, karpetak, kaseteak, audio-zintak, bideo-zintak, disko konpaktoak eta abar), eta horietan adieraziko dira ordena-zenbakia, edukiaren deskribapen laburra, jatorria (sailaren klabearen bitartez) eta muturretako datak.

46. artikulua.- Artxiboa osatzen duten instalazio-unitateak deskribatzeko, Inbentario Orokorra eginen da. Bertan, unitate horiek guztiak behar bezala sailkatu eta ordenatu ondoren, horien deskribapena jasoko da. Horretarako, honako elementu hauek aipatu beharko dira: signatura (unitate-mota eta zenbakia aipatuz), edukiaren deskribapena, sailaren klabea, bildutako doku-

mentazioaren mutur-urteak eta sailkapen-koadroaren digitoak.

47. artikulua.- Artxiboa osatzen duten espedienteak Katalogo Orokor baten bidez deskribatuko dira. Katalogo Orokor horrek honako elementu hauek hartuko ditu bere barnean: data, dokumentu-mota, saila adierazten duen klabea eta horren barruan duen zenbakia, autorea eta zein Parlamentuko taldetako den, gaia edo arazoa, karpeta-kopurua, horien signaturak eta oharrak.

48. artikulua.- Dokumentazioa errazago eskuratu ahal izateko egokitzat jotzen den beste edozein deskribapen-bitarteko erabili ahalko da.

V. KAPITULUA: LANGILEEI DAGOZKIEN EGINKIZUNAK

49. artikulua.- Artxiboari dagokionez, artxibozain-liburuzainak honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Artxiboan kokaturiko fondoak antolatzea eta horien sailkapen-koadroa zehaztea.

b) Deskribapen-bitartekoak zuzendu eta prestatzea (erregistroak, inbentarioak, aurkibideak, katalogoak, datu-baseak eta abar).

c) Artxiborako diren fondoak antolaketari eta horiek Artxibora eramateari buruzko jarraibideak prestatzea.

d) Artxiboan gordetako fondoak zaintzea eta horiek kontsultatzerakoan gertatzen diren arazoak ebaztea.

e) Dokumentazioa behar bezala kontserbatzeko behar edo komeni diren baldintza teknikoak erabakitzea.

f) Artxiboan egotekoak ez diren dokumentuak kentzea.

50. artikulua.- Artxiboari dagokionez, dokumentalistaren eginkizunak honako hauek izanen dira:

a) Dokumentazioa sailkatzea eta sailak ordenatzea.

b) Deskribapenerako bitartekoak prestatzea (erregistroak, inbentarioak, aurkibideak, katalogoak, datu-baseak eta abar).

c) Artxiboan kokaturiko fondoak zaintzea.

d) Artxiboan gorderiko informazioa eskuratzea, Biltzarreko organoek, parlamentariak, Parlamentuko taldeek eta Parlamentuaren zerbitzuko langileek hala eskatuz gero.

e) Bestelako erabiltzaileei informazioa ematea.

f) Bere mailarekin bateragarria den eta zerbitziburuak espreski esleitzen dion beste edozein eginkizun.

51. artikulua.- Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuari atxikiriko administrariak edo eginkizun nahiz epe zehatzetarako izendatuak honako eginkizun hauek beteko dituzte Artxiboan:

a) Parlamentuko zerbitzuetatik Artxibora egiten diren dokumentazio-transferentziak kudeatu eta erregistratzea.

b) Koadernaketak prestatu eta kudeatzea.

c) Horretarako prestatuturiko bitartekoak (inbentarioak, katalogoak, aurkibideak, fitxategiak) deskribatu eta erabiltzeko eginkizunetan lankide aritzea laguntzaile gisa.

d) Artxiboko datu-base informatikoetan datuak sartzea.

e) Artxiboko fondoak zaintzea; kontsultak, mailuak eta horien ondorioz egin litezkeen erreklamazioak kontrolatzea.

f) Testuak prozesatzea eta korrespondentzia kudeatzea.

g) Kontsulta Aretoa kontrolatu eta zaintzea.

h) Erabiltzaileari informazioa, orientabideak eta laguntza emateko lan egitea, besterekin batera.

i) Mikrofitxak eta mikrofilmak antolatzea; irakurgailuak, irakurgailu-erreproduktoreak eta antzeko aparatuak kudeatzea.

j) Estatistikak, egoera-orriak, zenbaketak eta kontabilitateko zirriborroak prestatzea.

k) Beren eginkizunak betetzeko beharrezkoa den dokumentazioa kudeatu eta edukitzea.

l) Beren mailarekin bateragarria den eta zerbitziburuak espreski esleitzen dien beste edozein eginkizun.

52. artikulua.- Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuari atxikiriko gelazainek edo eginkizun nahiz epe zehatzetarako izendatuak honako eginkizun hauek beteko dituzte Artxiboan:

a) Paper-sortak, kutxak, liburuak, erregistroak eta Artxiboko beste edonolako dokumentazioa garraiatu eta atontzea, Artxiboaren barruan nahiz kanpoan.

b) Izakinak zenbatu eta egiaztatzeko eragiketak.

c) Dokumentazioa zigilatzea.

d) Artxibozain-liburuzainaren zuzendaritzapean, paper-sortak eta espedienteak errotulatu eta horiei zenbakiak jartzea, eta gordetegiak antolatzea.

e) Espedienteak edo paper-sortak atontzeko eginkizunetan laguntzea.

f) Artxibozain-liburuzainaren, dokumentalisten eta administrariaren eginkizunetan laguntzea.

g) Artxiboko dokumentazioaren erreprografia.

h) Zerbitzuaren lokalak eta fondoak zaindu eta gordetzea; erabiltzaileek eskaturiko dokumentazioa eskuratzea eta dokumentazio hori bere jatorrizko lekura itzultzea.

i) Beren mailarekin bateragarria den eta zerbitziburuak espreski esleitzen dien beste edozein eginkizun.

VI. KAPITULUA: DOKUMENTAZIO TRANSFERENTZIAK

53. artikulua.- Urtearen lehen hiruhilekoan transferitutako da dokumentazioa Biltzarreko zerbitzu eta organoetatik Nafarroako Parlamentuko Artxibora, eta transferitua izanen da, nahitaez, aurreko urtea amaitzean bost urte baino gehiago dituen eta administrazio-izapidatzea bukatua duen dokumentazio guztia.

Administrazio-izapidatzea hasi zenetik bost urte igaro ondoren oraindik bukatu gabe badago, espedientea jatorrizko zerbitzuan geratu ahalko da, baldin eta Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio zerbitzuburuari idatziz jakinarazi bazaio eta horrek, idatziz ere, ados dagoela adierazi badu.

Dokumentazioak bost urte baino gutxiago izanik ere, transferitu ahalko da Artxibora, dokumentazioaren arduraduna eta Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio zerbitzuburu horretarako elkarrekin ados jarri ondoren.

54. artikulua.- Artxiboak ezarritako ereduari egokituriko eskualdatze-zerrenden bidez transferituko da dokumentazioa Nafarroako Parlamentuko Artxibora. Zerrenda horietan adierazi beharko da transferentzia zein urtetan egin den eta hori egin duen zerbitzu edo organoa, dokumentu-saila, kutxa edo instalazio-unitate bakoitzari esleituriko zenbakia eta horietako bakoitzaren edukia nahiz hasiera- eta amaiera-egunak.

Halaber, sailaren barneko espediente bakoitzaren edukiaren eta zenbakiaren berri ematen duten zerrendak emanen dira.

55. artikulua.- Nafarroako Parlamentuko Artxiboak egiaztatu eginen du jasotako dokumentazioa, behin-behineko signaturak emanen dizkio eta kasuan kasuko zerbitzuari eskualdatze-zerrenden kopia bat bidaliko dio, datu horiez hornitua.

Artxiboak kutxa edo instalazio-unitate bakoitzari behin betiko signatura esleitzen dionean, kasuan kasuko zerbitzuari jakinaraziko dio.

56. artikulua.- Nafarroako Parlamentuko Artxiboak Inbentario Orokorren kopia partzial bat emanen dio Parlamentuko zerbitzu edo organo bakoitzari; hain zuzen ere, horri dagokion dokumentazioa jasoko duena.

57. artikulua.- Zerbitzuburuak zehaztuko du zein dokumentazio kanporatu daitekeen artxibotik, eta horri buruzko proposamena igorriko dio Biltzarreko Mahaiari, horrek erabaki dezan.

VII. KAPITULUA: ARTXIBOKO DOKUMENTAZIOA ESKURATZEKO MODUA

58. artikulua.-Nafarroako Parlamentuko Artxiboko dokumentazioa eskuratzeko moduaren araubidea honako hauek osatzen dute: Biltzarren 1995eko otsailaren 2ko Erregelamenduak, Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antolaketari buruzko 1992ko azaroaren 2ko Erregelamenduak, herritarrek artxibo eta erregistro publikoetara irispidea izateari buruz indarra duen legedi orokorrak, aipaturikoak etorkizunean orde-

tuko dituzten lege-arauek eta hurrengo artikuluetan xedaturikoak.

59. artikulua.- Nafarroako Parlamentuko Artxibokoa den eta 30 urte baino gehiago dituen dokumentazioa dokumentazio historikotzat joko da, eta herritar guztiek eskuratu ahalko dute.

Pertsonen intimitatea bermatu ahal izateko, parlamentarien edo Parlamentuaren zerbitzuko langileen gai pertsonalei buruzko espedienteak edo dokumentazio historikoa ezin ahalko da kontsultatu harik eta aipaturiko pertsonen heriotzatik 10 urte igaro arte.

Ez dira gai pertsonaltzat joko kargu publiko batean aritzearekin edo kargu horretara iritsi ahal izateko baldintzekin zerikusia dutenak.

60. artikulua.- Nafarroako Parlamentuko Artxibokoa den eta 30 urte baino gutxiago dituen dokumentazioak indarraldian dirau, eta administrazio-dokumentaziotzat joko da. Dokumentazio hori eskuratzeko moduak kasu guztietan bermatu beharko du pertsonen intimitatearekiko errespetua, eta honako irizpide hauei jarraituko zaie:

a) Parlamentuko Lehendakariak, Mahaikideek eta legelari nagusiak Artxiboko dokumentazio guztia eskuratzeko modua izanen dute.

b) Bozeramaileen Batzarreko kideek Artxibotik eskuratu ahalko duten dokumentazioa Biltzarren barne-araubide eta -gobernuari buruzkoa den eta gai horietan dauzkaten eskumenen erabilerarekin zerikusia duena da.

c) Parlamentariak eta Parlamentuko taldeek Artxibotik eskuratu ahalko duten dokumentazioa haiek esku hartzen duteneko legegintzako, kontrolako eta zuzendaritza politikoko eginkizunak betetzearekin zerikusia duena da.

d) Ikerketa batzordeei buruzko dokumentazioa eta horiei loturik Biltzarreko organoek eginiko isilpeko bilkurei buruzkoa isilpekoak izanen dira.

e) Parlamentarien Interes Erregistroa, jardue-ra-aitorpenei dagokienez, publikoa da, erregelamenduz Biltzarrak ezarritako moduan.

f) Parlamentuko organoek, zerbitzuek, administrazio-unitateek eta funtzionarioek beraiek ekoiztutako edo kudeatutako dokumentazioa eskuratu ahalko dute. Bestelako fondoak eskuratu ahal izateko, lehendakariaren, legelari nagusiaren edo artxibozain-liburuzainaren baimena beharko dute.

g) Nafarroako Parlamentuak izapidaturiko administrazio-prozedura batean ukituak diren pertsona edo entitateek, prozedura horren espedien-

tea Parlamentuaren Artxiboan egonik, edozein unetan eskuratu ahalko dute aipaturiko espedienteak, baita horrekin gordetzen den dokumentazioaren kopiak lortu ere.

h) Ikertzaile-izaera eta euren azterlanen helburua frogatzen duten ikertzaileek horiekin zerikusia duen, 30 urte baino gutxiago dituen eta Artxiboan gordetzen den dokumentazioa kontsultatzeko baimena eskatu ahalko dute, eta Mahaiak egokien jotzen duen baimena emateko ahalmena izanen du. Baimen hori ezin izanen da eman isilpeko bilkuren aktak eta transkripzioak edo lerketa Batzordeetako dokumentazioa kontsultatzeko.

61. artikulua.- Parlamentariak eskubidea dute kasu bakoitzean euren jardunean aritzeko beharrezkoa duten dokumentazioa Artxibotik eskuratzeko, dokumentazio hori beharrezko egiten duten Biltzarreko organoen bilerak egin aurretik.

Parlamentariak eginiko dokumentazio-eskaerak zehatzak izanen dira, eta aurkezten diren unean horiek izapidatzeko behar den denbora dagoela ziurtatuko da. Gai horrekin loturik deskribapenerako bitartekoetan dagoen dokumentazio guztia eskuratzen utziko du Artxiboak.

62. artikulua.- Betetzen ari diren kargu edo eginkizuna dela-eta Artxiboko dokumentazioa eskuratzen duten parlamentari eta Parlamentuko langileek horren edukia isilpean gordetzeko betebeharra dute, euren kargu edo eginkizuna betetzeko beharrezkoa denerako izan ezik.

63. artikulua.- Erabiltzaileek idatziz eginen dute dokumentazioa kontsultatzeko eskaera, eta, eskuratzen dutenean, jaso izanaren adierazpena sinatuko dute. Bestalde, Artxiboak dokumentazioa bueltatu dela ziurtatuko du izapide horren kopia bat erabiltzaileari luzatuz, horrek hala eskatu badu.

64. artikulua.- Artxiboak ezarriko du kontsulta zein baldintza zehaztuz eginen den, eta erabil-

tzaileek baldintza horiek beteko dituzte; bestela, ezin izanen dute dokumentazioa kontsultatu.

65. artikulua.- Nafarroako Parlamentuko Artxiboko dokumentazioa Parlamentuaren egoitzan kontsultatuko da. Dena den, dokumentazioaren mailegua ere baimendu ahalko da.

66. artikulua.- Nafarroako Parlamentuko Artxiboko dokumentazioaren mailegutzat joko da dokumentazio hori Zerbitzuaren kokagunetik Nafarroako Parlamentuko beste kokagune batera soilik, eta ez beste inora, fisikoki ateratzea, Biltzarreko organoek edo Parlamentuaren zerbitzuko langileek erabil dezaten. Maileguan ematea Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio zerbitzuburuaren eskumena da.

67. artikulua.- Nafarroako Parlamentuko Artxiboko dokumentazioa ezin da Nafarroako Parlamentuaren egoitzatik eta Parlamentuari atxikiriko lokaletatik atera, Biltzarreko Mahaiak kasu bakoitzean erabaki baten bidez espreski hala baimentzen duenean izan ezik; kasu horretan, dokumentazioa zenbat denborarako eta zein baldintza betez aterako den zehaztuko du.

VIII. KAPITULUA: ARAU HAUEK BETETZEA

68. artikulua.- Artxibozain-liburuzaina da Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio zerbitzuburu, eta berak emanen ditu arau hauek betearazteko beharrezkoak diren jarraibideak; halaber, eredu ofizialak ezarriko ditu, eta inprimakiak, deskribapen-bitartekoak nahiz datu-baseak eredu horiei egokituko zaizkie.

69. artikulua.- Arau hauen aplikazioa dela-eta sortzen diren arazo guztiak honako hauek ebatziko dituzte, elkarren segidako instantzietan eta aipatuak diren hurrenkeran: Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio zerbitzuburuak, legelari nagusiak eta Biltzarreko Mahaiak. Azken horren erabakien aurka errekurtsioa paratu ahalko da Justizia Auzitegietan.